

2010-06-18

Azken urteetako espedizio kopuru txikiena hartuko du mendikateak udan: 25 talde. Broad Peak eta Gasherbrum 'bikiak' dituzte jomuga hara joandako bi euskal espedizioek.

# Karakorum

## Kriariaren itzalpean

EKAITZ AGIRRE.

Donostia

[Arian Lamel alpinista,](#)  
'gailurretako zabor biltzailea'

Krisi hitzaren zamak baldintzatuta dator Karakorum mendikateko denboraldia. Udaberri eta udazkenean Himalayako mendietara baino espedizio gutxiago joan ohi da udan hara, baina aurtengoak ez du azken urteetan aurrekaririk. Behea jo du espedizioen baimen

eskaerak, eta, ondorioz, Pakistango agintariak emandako baimen kopuruak: 25 espedizioak jaso dute. Iaz 70 baimen banatu zituzten, eta ordukoari ere kopuru urria iritzi zioten Pakistango agintariak. Trekking agentziak eta hotel eta jatetxeen jabeak ez daude gozo, baina Pakistango mendietan bizi diren baltiarrentzat da batez ere datua kezagarria. Espedizioak eta mendiko turistak diru iturri dira, zamalari edo sukaldari lanak eginda. Espedizio kopuruaren jaitsiera igarriko dute.

Krisialdi ekonomikoa da gertatutakoa azaltzen duen aldagaietako bat. Babesleak topatzea lan nekeza baldin bada futbol, saskibalo, eskubalo eta txirrindulari taldeentzat, mendizaleentzat are nekezagoa da espedizioetan lagunduko dieten etxeak bilatzea. Pakistanek eta inguruko beste herrialdeek duten ezegonkortasun politikoa da jaitsieraren beste arrazoa. Afganistanekin eta Iranekin muga egiten du Pakistanek, eta Kaxmir dela eta ez dela Indiarekin duen gatazkak komunikabideetan oihartzun handia izan du. Hedabideetatik zabalduko mezuak, erakarri bainoago, uxatu egiten du mendebaldeko mendizale eta turista.

Emandako baimen gehienak, noski, zortzimilako mendietara joateko dira. Hamalau erraldoietatik bost daude Pakistanen: K2 (8.611), Gasherbrum I (8.068) eta Gasherbrum II (8.035) -Txinarekin partekatzen ditu-, Broad Peak (8.047) eta Nanga Parbat (8.125). Gainera zetorkienaz jabetuta, 2010erako baimenen prezioa merkatzea erabaki zuten iaz Pakistango agintariak. Horiek horrela, K2ra joateko baimenaren prezioak erdia balio du orain: 4.000 eurora, beti ere zazpi kidek osatutako taldeentzat -1.000 dolarreko gainkarga kopuru horretatik gora espediziokide bakoitzeko -. Zortzimilako beste lau mendietara joateko, aldiz, 3.000 euro ordaindu behar dira.

Altuera aldetik apalagoak diren mendietara joateko ez da baimenik ordaindu behar. Hori da 6.500 metrotik beherako altuera duten mendi eta orratzen kasua, eta halako jomugak gustuko dituzten mendizale eta eskalatzailentzat benetako paradisu da Karakorum mendikatea. Asko eta asko dira igotzeko dauden mendiak, are gehiago mendi horietan arakatu eta igo gabeko hormak. Haietara bideratuko dituzte urratsak mendiari eta eskaladari esplorazio ukitua gehitu nahi dioten alpinistak.

### Broad Peak eta Gasherbrum

Zortzimilako mendiei erreparatu gero, asmo handizaleekin abiatu da Italiako espedizioa bat. Zortzimilakoetan igotzeko dagoen erronketako bat aukeratu dute: G-I mendia ipar aurpegia. Agostino de Polenza da espedizioburua, eta Italiako himalaysta onentsuenetako askok osatzen dute taldea: Silvio Mondinelli, Herve Barmasse, Daniele Bernasconi, Mario Panzeri, Soro Dorotei eta Michele Compagnoni.

Euskal Herritik bi talde abiatu dira Karakorum aldera. Jakina denez, Broad Peak mendiko hiru tontorrak estilo alpinoan lotzea helburu hartuta joan dira Alberto Inurrategi, Mikel Zabalza eta Juan Vallejo. Beheko kanpalekua Godwin-Austen glaziarrean jarri dute, Broad Peak mendilerroaren magalean, 4.900 metroan. Gerturatzea uste baino nekezagoa egin zaie, mendian pilatutako elur geruza handia tarteko, eta egunotan ekingo diote altuerako girotzeari.

Gasherbrum I eta II mendiak igotzeko asmoz joan dira, bestalde, Roberto Rojo *Gorri* eta Carlos Martinez arabarrak. G-II mendia igotzen saiatuko dira aurrena, eta, ongi bidean, G-I mendian biribildu nahi dute espedizioa. Alberto Zerainek eta Xabier Alzolak 2006ko udan lortu zuten halakorik. «Ahalegin fisiko handia eskatuko digu, batez ere. G-II igotzea dugu errekuuperatzeko. Behar bezala osatuz gero, saiatuko gara alpinoan eta saio bakarrean G-I igotzen», adierazi du Gorrik dituzten asmoen berri emateko. Audioko mendizaleak Broad Peak, Nanga Parbat, Makalu eta Cho Oyu mendiak igoak ditu; Martinezek, aldiz, Makalu igo zuen, 2008an, Gorri bera sokalagun zuela, hain zuzen.

Badira jendearen arreta bereganatu duten beste hainbat asmo ere. Fredrik Ericsson mendizale eta eskialtzailak, esaterako, ez du nolanhiko erronka aukeratu: K2 mendia oxigenorik gabe igo nahi du, eta eskiatzen jaisteko asmoa du. Iaz ere saiatu zen, baina orduko hartan Michele Fait espediziokidearen ezbehar eta heriotzak behartu zuen atzera egitera. Mendiak eskiekin jaitsi zalea da Ericsson, eta aurrez Kangcehnjunga edota Everest ere oholak jantzita jaitsi zituen.

Udaberrian Everest igo ondoren, Gerlinde Kaltenbrunner da hara abiatuko den bestea. K2 mendia

igotzea falta zaio hamalau zortzimilakoak igotzeko, eta zerrenda bukatzen saiatuko da udan. Ez da emakume bakarra izango: Kinga Baranowska eta Anna Czerwinska poloniarrek eta Leila Esfandiyari irandarra joango dira K2ra.